



Beterri-Buruntza Mankomunitatea, martxan

Urtarrilaren 17an abiatu zen garapen-agentziaren funtzioak beteko dituen erakunde berria, Hemanin egin zen sortze-batzarrean / 2-3

Odola emateko urteko lehen aukera

Urtarrilaren 28an, odola emateko aukera dago Urnietako Gaztelekuan, arratsaldeko 16:30ean hasita. Odol-emateen elkarteak bat egiteko deia egin du / 16



Alba Quel
urnietarrari,
Gazte Koordinakunde
Sozialistako
kideari, elkarrizketa / 8-9



Koronabirusaren
seigarren
olatuarekin batera
heriotzak areagotzen
ari dira / 6-7



Sergio Garcia: "Kirola
egiteko aukera ukatuz
gero, gaztetxo horrek
beste ohitura
batzuetara joko du" / 12



Aspilla otarra

ekologikoa, baserrikoa, garaikoa

Aspillan barazki ekologikoak landatzen ditugu, lurra mimoz eta errespetuz landuaz.

Andoaindarrak gara, emakume gazteak eta gure ondare kulturala defendatzen dugu.

Salmenta zuzena, bitartekaririk gabea... zuzenean baserritik etxeetara.

677 110 541 aspilla.eko@gmail.com  Aspilla Eko



Urnieta, Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udal ordezkariak Hernaniko pleno aretoan, Beterri Buruntza Mankomunitatea osatu berritan ateratako argazkian. AIURRI

Beterri-Buruntza Mankomunitatea abiatu da, bitan banatuta

EAJ-PNVk eta PSE-EEK lortutako adostasunaren bitartez, eskualdeko garapen-agentziako lehendakari eta lehendakari-ordetza eskuratu dituzte. Eskualdean botoetan nagusi den EH Bildu agente-postu horietatik kanpo geratu da

Jon Ander Ubeda HERNANI
Gipuzkoako eskualde guztietan garapen agentziak martxan daude honezkerok, Beterri-Buruntza-koa baitzen erakunderik ez zuen

azken eskualdea. Sortze prozesuan bloke politikoen logika gainditu da, urtarrilaren 17an deitu zuten lehen batzarraldian kargu nagusiak EAJ-PNV eta PSE-EEren

arte banatu zituztelako. EH Bildurentzat aukera hori ez da batere orekatua izan, eskualdean babes gehien duen alderdia dela aldarrikatu baitzuten.



Nuria Fernandez lehendakari-ordea eta Izaguirre lehendakaria. AIURRI

Lehen gobernu-batzordea osatu da

Honako hauxe izango da Beterri Buruntza Mankomunitatearen lehen gobernu batzordearen osaketa:

- Marijose Izaguirre, lehendakaria (Andoaingo alkate-ordea. EAJ-PNV).
- Nuria Fernandez, lehendakari-ordea (Lasarte-Oriako zinegotzia. PSE-EE).
- Xabier Lertxundi, batzordekidea (Hernaniko alkatea. EH Bildu).
- Jorge Segurado, batzordekidea (Urnieta alkatea. EAJ-PNV).
- Xabier Urdangarin, batzordekidea (Astigarragako alkatea. EH Bildu).
- Beñat Larrañaga, batzordekidea (Usurbilgo zinegotzia. EH Bildu).

Ordezkoen zerrenda ere adostu zen. Tartean dira Maider Lainez Andoaingo alkatea eta Agurtzane Mercader Urnieta alkatea zinegotzia.



Ezkerrean EAJ-PNVko lau ordezkari eta PSE-EEko beste bi. Tartean adineko mahaia eta Andoaingo Udal idazkaria, eta eskuinean EH Bilduko ordezkariak. Batzarraldiaren bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean AIURRI

Batzarra hasi aurretik, ordezkari bakoitza eseri zen tokiari erreparatuta, bi bloke nagusi zeudela antzeman zitekeen. Alde batean, PSE-EEK eta EAJ-PNVk osaturikoa. Eta, beste aldean, aurrekoen parez pare eserita, EH Bilduko ordezkariak. Andoaingo Udaleko idazkari Unai Rekondok bideratu zuen lehen batzarra. Boto ponderatua edo kualitatiboa erabili zuten, eta sistema horren arabera egindako bozketaren ondorioz bi kargu nagusiak sozialisten eta jeltzaleen artean banatu zituzten.

Adierazpenetan, mankomunitatea sortzearekin ados eta pozik agertu ziren guztiak. Horretan ez zen ezberdintasunik izan. Ñabardurak sortu ziren, ordea, argudioak ematen hasi zirenean. Hernaniko alkate Xabier Lertxundik EH Bildu aginte-postuetatik kanpo uzteko jokabidea aurpegiatu zien beste bi alderdiei: "Eskualdeko lehena den indarra zuzendaritzako kargu nagusietatik kanpo utzi dugu. Urte hauetan guztietan adostasunaren foroa izan da, lanean aritu garenok saiakera horri eutsi izan diogu. Estatutuen filosofian argi geratzen da zein izan behar duen Mankomunitatearen izaera: kargu gorenak alderdi ezberdinetakoak eta udalerrri ezberdinetakoak izan behar dira. Hartara, eskualdearen izaera hobeto islatzeko. Baina EAJ-PNVri eta PSE-EEri esker esan dezakegu egun Mankomunitatearen zuzendaritzaren osaketak ez duela eskualdeko errealitatea islatuko. EH Bildu kanpoan utzi duzelako. Ez du zue negoziaketarako aukera irerki.



Beterri-Buruntzako EH Bilduko ordezkarien agerraldia, Hernanin. AIURRI

Aginte-postuen osaketaren aurka agertu da eskualdeko EH Bildu

Astigarragako, Hernaniko eta Usurbilgo EH Bilduko ordezkariak Mankomunitatea osatzeko ekitaldian parte hartu zuten. Saioa amaitu ostean agerraldia deitu zuten beren posizioa agertzeko. Lehen lerroan eseri ziren Xabier Urdangarin Astigarragako alkatea, Xabier Lertxundi Hernaniko alkatea eta Agurtzane Solabarrieta Usurbilgo alkatea. Haien alboan ziren udalerrri bakoitzeko zinegotzi bana. Xabier Lertxundik egin zuen bozeramaile lana: "Egun pozgarria da eskualde izaera indartuko duen egitura bat eratu delako, baina, zoritxarrez, poz hori ilundu egin da. EAJ-PNVk eta PSE-EEK beren artean egindako akordioetatik EH Bildu lehendakari eta lehendakaritza-orde postuetatik kanpo utzi dute. Zuzendaritza berria ez da eskualde honen gehiengoaren isla izango, eta hori da salatu nahi duguna. EH Bilduk 41 zinegotzi ditu sei herrietan, zinegotzien %43. Indar bozkatuena da eskualdean eta beraien arteko paktua dela eta gu kanpoan uztea erabaki dute. Honek agerian uzten du haiek duten lan egiteko modua, eta gobernatzeko duten erredua. Bizkar ematen diote herritarrek egin duten aukeraketari. Interes partidistak lehenesten dituzte, eta negoziatzeko gaitasun edo borondate falta dute. Lehendakaritzarako hautagaitza aurkeztu bagenuen ere, beraiekin negoziatzeko prest ginen. Negoziaketetarako gonbitea egin genien eta erantzunik ere ez da izan.

EH Bilduko ordezkariok, orain arte bezala, konpromiso guztiarekin arituko gara lanean eskualdearen mesedetan eta baita mankomunitatearen mesedetan ere".

EH Bildutik orain arteko prozesuan oso eskuzabal jokatu dugu eta negoziatzeko gaitasuna eta nahia erakutsi dugu. Gaur, lehen aldiz, erabateko adostasuna ez duen erabakia hartu da".

Marijose Izagirre jeltzalea, Mankomunitateko lehendakaria, pozarren agertu zen: "Pozteko eguna da gaurkoa. Uste dut denok pozik egon behar dugula, hainbat urteko lana gaur irudikatu delako. Akordioetara iristeko eta negoziatzeko garaia orain hasten da. Martxan hasi behar dugu eta denok egin behar dugu indarra Mankomunitatea abiarazteko. Leporatzen dizkiguzuen formak ez dira horrela izan. Polemikak alde batera utzita, guztion erronka gauzatu da".

Bigarren txandan, Lertxundik erantzun egin zion: "Akordioak hartzeko unea ez da orain hasten. Aspaldi hasi zen, nik neuk eskualdeko hitzarmenaren barnean bost bat urte eman ditut. Hemen lan egin da erakundea existitu aurretik, erakundearen barnean. Eta hor akordioak lortu dira. Lana egin da, eta erakundea ez da zerotik abiatzen". Ez zuen bide horretan sakondu nahi izan Izagirre Mankomunitateko presidente berriak. "Egun ona da Mankomunitatea eratu delako" esanez amaitu zuen bere adierazpena.

Maidar Lainez Andoaingo alkateak ere, sozialisten izenean, hitza hartu zuen "poza" agertzeko.

Saioa amaituta, eta kazetarien aurrean, jeltzaleen eta Bilduko orain arteko ika-mikak jarraitu zuen. Tentsioa nabarmena zen, baita ekitaldia bukatuta ere.

Lankidetzaren formulatik Mankomunitate izaeradun entitatera

"Beterri-Buruntzako Udalak", horixe zen orain arte lankidetzaren aritzeko erabiltzen zen formula juridikoa. Andoaingo Udalak pisu handia hartu zuen, aurreko agintaldietan hasita. Izan ere, udalerrriko baliabideak erabili ziren garapen-agentziaren pareko gutxieneko antolamenduari eusteko. Garapen agentzia iritsi bitarte, lankidetzaren hitzarmenak sinatzen ziren. Azkenekoa 2021eko urtarrilaren 22koa da. Aho batez onartzen ziren, gainera. Har dezagun kontsentsuaren adibide gisa iazko Urrietako ez ohiko batzarraldiaren akta.

PSE-EEko Herme Gonzalezek baiezkotzea eman zuen "hitzarmen honen luzapen hori Beterri-Buruntza eskualdean osatzen duten udalerrri guztien arteko akordioa delako". Ainara De Miguelek EH Bilduren ohiko jokabidea zein den azaldu zuen: "Beti hitzarmen honekin adostasuna agertu dugu, eta aurrera egiteko alde bozkatuko dugu".

EAJ-PNVren izenean Mikel Pagolak eskualdearen berezitasuna nabarmendu zuen, agentziarik ez duen eskualde bakarra baita: "Gipuzkoan garapen agentziarik garatu gabeko eskualde bakarra gara, eta hitzarmenaren gauden sei herriko lankidetzaren beharrezko da elkarrekin funtzionatzea, lan egitea. Tipologia askoko herriak gaude, eta, txikiak izanik, onura handiak ateratu ditzakegu eskualdeko lan eginez". Kontsentsu zabal hori hautsi egin da aginte-postuak aukeratzeko garaian.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

IGOR BARANDIARAN ANDOAIN

Sagarduri, Urkulluri eta Osakidetzari, oro har

Denok daramagu gainean, gustatu ala ez, ia bi urteko pandemia. Ia bi urte Euskal Herriko biztanle gehienek emandako osasun-gomendioak, murrizketak, itxiera perimetralak, ostalaritzaren itxierak edota ordutegien-edukieren murrizketak, kontaktuen murrizketak, eta abar jarraitzen.

Ulertzen dut oso zaila izan dela eta izaten ari dela hori guztia kudeatzea, bai osasun alorraren aldetik, bai politikaren aldetik; oso erabaki zailak hartu behar izan dira osasuna ekonomiarekin orekatzeko. Egia esan, ez nuke toki horretan egon nahi.

Era berean, eta nabarmendu beharreko ohar garrantzitsu gisa, Euskal

Herriko herritar gehienek emandako txertaketa-jarraibideen gomendioari jarraitzen aritu gara: gure adineko pertsonetatik eta txikienetatik hasita. Hori dela eta, biztanleriaren %80k baino gehiagok ia 11 hilabetetan zuen txertoa.

Horrekin guztiarekin, Omicron aldaera dator, eta, horrekin batera, kutsatzen biderkaketa, positiboaren areagotzea, ospitaleratzen gehikuntza, ZIU dauden pertsonak, lehen mailako arretako saturazioa eta/edo kolapsoa. Horrekin guztiarekin jarduera-protokoloak aldatu zirela irakurri berri dut. Nahastuta eta harrituta utzi nau. Hemendik aurrera, "soilik adieraziko da diagnostiko-proba bat egitea zaurgarritzat

jotzen diren kontaktu estuei: 70 urtetik gorako pertsoneri, immunodeprimituei, haurdun dauden emakumei, gaixotasun kroniko moderatu-larria erregistratuta duten pertsoneri eta txertatu gabeko pertsoneri". Txertatu gabeko pertsonak?

Pertsona batek erabaki badu bere kabuz ez txertatzea, pertsona horrek egokitzen jo dituen eta niri gustatu zaizkidan edo ez zaizkidan arrazoiengatik, aukera hori egiteko

"ZEINEN ARABERA ERABAKITZEN DA TXERTATU GABEKOA ZAURGARRIEN ZERRENDAN SARTZEA?"

eskubidea du. Baina zergatik du pertsona horrek nik edo gomendio guztiak jarraitu dituen herritar gehienek baina lehentasun handiagoa?

Zeinen arabera erabakitzen da txertatu ez den pertsona bat zaurgarrien zerrendan sartzea? Pertsona horrek berak erabaki badu ez txertatzea, alegia, zaurgarri bilakatzea erabaki badu?

Sagardui andrea: zein arrazoi medio hartu da erabakia? Ekonomikoei, PCR eta laborategien kostuagatik? Osasun-laguntzaren

"NON GERATZEN DIRA EUSKAL HERRIKO GAINERAKO HERRITARREN ESKUBIDEAK?"

saturazio/kolapsoagatik? (Tamalgarria litzateke, erabaki horrekin eskubide publiko gehiago ematen baitzaio txertatzea erabaki ez duen pertsonari, alegia zaurgarri izatea erabaki duenari).

Gaur egun, eta behar adina txerto egonda, beren kabuz ez txertatzea erabaki duten pertsonak zaurgarri izatea erabaki dute. Eskubide osoa dute; baina non geratzen dira Euskal Herriko gainerako herritarren eskubideak? Emandako gomendio, murrizketa eta txertaketa-jarraibide guzti-guztiak jarraitu dituzten horienak?

Gizarteari, oro har, puntu zehatz horri buruzko azalpen publikoa eman beharko litzaioke. Agur bero bat.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.





IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Probintzianismoa

Espainiako RAE espainieraren akademiak lau adiera jasotzen ditu, hitz horren esanahiaz. Iritzi artikulua honetan azaldu nahi dena adierazteko, honako hauxe egokiena: *Excesivamente apegado a la mentalidad o a las costumbres de su provincia.*

Probintzianismoak futbola du bizitoki, arnas-gune. Gauza askok bezala. Futbola funtsezkoa da gure jendarteko pertsona askorentzat, eta horien izaera beren futbol taldearen emaitzen arabera izaten da sarri. Irabazten badu, euforia. Galtzen badu, amorrua. Futbolak jaten emango balie bezala... Gurean Athletic eta Realaren arteko lehia historikoak gorpuzten du

probintzianismoa. Elkarren aurka jokatzeko dutenean, batez ere. Zer esanik ez bien artean jokoan tituluren bat dagoenean, iazko Kopa, kasu.

Egon gabe ere bai. Athletic Espainiako Superkopa jokatzeko aritu da. Atletico Madril gainditu zuen finalerdian, finala galdu Real Madril aurka. Lehiaketa hasi baino lehen hasi zen A-8ko ohiko eskopeta soinu. Mendebaldean, Bizkaian, eta ekialdean, Gipuzkoan. Bizilagunari amorrua, ezin ikusia diotenen koadrila aberatsa. Athleticek ez zuela Superkopa jokatu behar irakurri nuen aurrena. Atletico Madril dozena erdi gol sartuko balizkio gau

ederra izango zela, gero. Williams anaien jatorriari buruzko perlak ere lotsatzeko modukoak...

Jakina, artaburuak A-8aren bi aldeetan daudenez, alde bateko suzirik erraz hartzen dute sua, eta iskanbila eta konfrontazio giroa etengabe elikatu. Onar dezaket Realarentzat Athletic, edo Athleticentzat Real, kirol aurkari zuzena izatea Euskal Herriko futbol panoraman, nor izan indartsuago, aberatsago, onurak dakartzalako. Kirol lehia sanoaz ari naiz, egun gurean lehia horrek sanotik gutxi baitauka, eta gaitzotik asko. Bizilagunari, kontrarioari munduko gaitzik mingarriena opa zaio, beste

ezeren ginetik, eta sare sozialetako anonimotasunean Athletic edota Real desagertzea ozen eskatzen dutenak ez dira gutxi.

Horrek guztiak hainbat komunikabideren babesa eta berotze efektua dauka atzean. Zein diren esan gabe ere, jakina da ze komunikazio enpresek sustatzen duten A-8 autopistako bi taldeen arteko ezin ikusia, gorrotoa. Ni horren kontra nago, eta pike sanoaren alde. Realeko zalea naiz, baina ez diot gauza txarrik opa Athletic-i. Realaren, Osasunaren edo Alavesen aurka jokatzeko duenean izan ezik, nahiago dut irabaztea, galtzea baino (Osasuna eta Alaves ere

gustuko ditudalako). Zer esanik ez Espainiako bi talde nagusien aurka, Real Madril eta Atletico Madril aurka jokatzeko duenean. Edo Barçaen aurka. Pentsamendu horrek egoera deseroso anitz eragin dizkit sare sozialetan, baina bizkar gainean mende erdiko pisua osatzean, lotsagabe aritzen diren troll-ekin arazorik ez.

Ni Euskal Herrikoa naiz, eta Euskal Herriko taldeak ditut gustuko. Egunen batean nazio subirano bagara, nola eraikiko dugu herria gure aberriko bi kirol elkarte garrantzitsuenetako zaleek elkarri tamainako gorrotoa badiote? Zaila, ezta? Badaukagu lana...

IRITZIA

JOSETXO MENDIA IRUÑA-VELEIA MARTXAN TALDEA

Iruña-Veleia, aztarnategi eta auzi baten historia

Iruña-Veleia Gasteiztik bederatzi kilometrora dagoen aztarnategia da, Langraitz herrian, Billodas eta Tresponte artean. Bertan XIX mende bukaeraz geroztik industen da; hau da, k.a 1200. urtetik erromatarrik iritsi bitarte, 45 hektarea inguru hartu zituen hiri karistiarra topatu da. Bestalde, I eta II mendeen arteko hiri erromatar oparoa ere aurkitu da, 120 hektareako hedadura zuena eta 10.000 biztanle izan zitzaizkela. III. mende bukaeran eta IV. mende hasieran hiria harresitu eta 13 hektareako zabalera mugatuko zen. Hiriak, inperio osoko gainerakoei gertatu bezala, indarra galtzen du. Feudalismoaren hasiera baita. Hori aztarnategian ondo nabarmentzen da. Horrela V. mendean gertatzen dira Euskal Herrian eta ondoren, Bisigodo eta Frankoen aurka

arrituko dira, VI. mendean hiria hutsik geratu arte.

Grafitoen auzia

2006. urtean aurkeztu dira gerora horren polemikoak izan diren grafitoak (idazkiak). 2008an Arabako Aldundiak "Komisio Zientifiko" bat osatzen du auzia argitze aldera. Komisioaren txostenak jaso aurretik, grafitoak faltsutatzeko lanetan ari diren arkeologoak kaleratu eta epaitegitara jotzen da. Aipatu txosten horietan (faltsutasunaren aldekoak), ez da inongo proba arkeometrikorik aurkeztu, denak iritziak dira.

Horrela, hamabi urtez luzatuko den epaiketa hasten da, gaur egun errekurrituta dagoena. Bertan, grafologia frogak, ertzaintzak baliogabetzen ditu. R.I.P. grafitoaren kasuan, Aldundiko

errestauratzaileek hori jartzen duela ezeztatzen dute eta grafitoak faltsuak direla erabakitzeke, Madrilgo Instituto del Patrimonio de la Cultura de España (IPCE) aurkeztutako txostenaren oinarritzen dira.

Honen arabera, grafitoetan 5 eta 10 mikra bitarteko metal modernoak aztarnak topatzen dira. Defentsako peritoak kontraste frogarrik egin ote duen galdetuta, IPCEko langileak, Navarro jaunak, ezetz dio. Aldiz kontraste frogan, (garaiko zeramika puska bat hartu eta bertan grafito bat egin) 50 eta 100 mikra bitarteko metal arrastoak topatzen dira. kontutan izan metal modernoak beti topatuko direla, piezak uretan pasa, alanbre zepiloekin garbitu, bata bestearekin erantsi eta hainbat manipulazio jasaten baitituzte munduko


aztarnategi guztietan. Horrez gain, Navarro jaunak ez du aintzat hartzen lekuko piezak aztertzea (garai bereko beste aztarnategietan topatutako piezei froga egitea, ikusteko ea zenbat metal moderno topatzen den haietan). Froga hori erabiltzen du epaitegiak grafitoak faltsutatzeko eta Eliseo Gil zigortzeko, bere aburuz, ez baitzuen nahikoa arreta jarri faltsutzea ekiditeko. Izan ere, epaiak ez du argitzen noiz eta nork faltsutu zituen grafito horiek.

Zer eskatzen dugu

Honen aurrean Iruña-Veleia Martxan taldeak froga arkeometrikoak eskatzen ditugu auzia behingoz bide zientifiko baten bidez argitu dadin.

- Karbono 14 froga. Hezurretan idatzita dauden grafitoak datatuko litzuzkeenak. Adibidez NIIFIIRTITI.

- Termoluminiszentzia froga. Adreiluan idatzitakoak noiz idatzi ziren jakiteko, adreilua noiz egosi zen argitzen baitigu. Adibidez, YAVHIII GIIIVRII ATA.
- Konkrezio kaltzikoaren analisia. Hainbat grafitotan konkrezio hauek letrak estaltzen dituzte. Analisia eginez gero, hizkiak konkrezioak baina zaharragoak direla argi geratuko litzateke. Adibidez, NIIV XII VRT[e] TV, III [r] IIBA TV, NIIV CII[.....].
- Grafito bereziak topatu diren kata inguruan, berritri kontrolpean indusketa egin, oso litekeena baita antzeko zerbaitek agertzea.
- Guzti hori, patxadaz eta inguru zoragarri batean, azaltzen dugu aztarnategian bertan. Hileko lehen igandeetan egiten ditugun bisita gidatuetan. Zatozte eta gozatu!



Gorritz, hildakoen garapena. Azken asteetako ikusita, kezka handia eragiten duen joera antzematen da. C19ANALISIA

Tsunamiaren ostean agertzen hasi dira hildakoak

Tsunamiak arrasto sakona utzi ohi dute, hondamendia eragin. Koronabirusaren kasuan, hondamendiarekin parekatu daitezke birusak eragiten dituen heriotzak. Atzera bueltarik ez duen galera da


Jon Ander Ubeda AIURRI

Honaino iritsita, pandemiaren jarraipena egiten ari garen zientzilaria, erakundeetako ordezkari zein kazetariok olatu bakoitzak erakusten duen joeraren jakitun gara. Positiboak biderkatzen hasi eta aste gutxiko epean ospitaleetako oheak betetzen hasten dira. Hurrenkera hori errepikatu da olatu bakoitzaren ostean. Seigarren olatuak Andoainen jo zuen lehenik, eta lehenengoetakoak izan ginen

"Tsunami" hitza aipatzen. Zoritarrez, aste gutxiren bueltan positiboen erauntsia udalerrri gutzietara zabaldu zen.

Urriaren 22an, dagoeneko, EAE-k zuen estatu osoko 7 eta 14 egunetako intzidentzia-tasarik handiena. Eta, bereziki, Gipuzkoako datuengatik izan zen hori. Egun haietan Sagardui sailburuak garrantzia kendu nahi izan zion egoera horri. Ospitaleratzeak hazten ari zirela bai, baina zainketa berezien unitateetan ez zela

nabari adierazi zuen. Ez zuen gutxi iraun lasaitasunerako mezu horrek, datuak gordinak baitira. Azarotik hona ospitaleen egoera nabarmen estutu da, eta proportzio berean zainketa berezien unitateak. Honaino iritsita, heriotzen joerari erreparatzea da olatuaren tamainari neurria hartzeko datu sendoena. Aurreko astean 78 lagun hil ziren, bi hilabete atzera, asteko 5-6 lagun hiltzen zirenean. Atzera bueltarik ez duen galera da.



Hilkortasun-tasa oso apala izan arren, heriotzak areagotuz doa. C19ANALISIA

Kutsaketa masiboak heriotza-kopuruaren hazkundera eragin du

Positiboen kopurua eta hildakoen kopurua uztartzetik dator hilkortasun-tasa. Urko Vallejo andoaindarrak Osakidetza emandako datuetatik abiatuta egin duen grafikoan ikusten da hilkortasun-tasa oso apala dela (berdez ageri da). Heine handi batean txertaketaren ondorio da hori. Baina seigarren olatuaren eragina hain handia izan da, milaka eta milaka lagun kutsatu direla. Beraz, hilkortasun-tasa apala izanik ere jende asko hiltzen ari da.

Positibo guztiekiko alderaketa eginez gutxi dira, zenbaki hotzei erreparatuta. Baina astez aste igotzen doa. Aste bakarrean koronabirusagatik 78 lagunek heriotza aurkitzea oso datu kezagarria da. Antza denez, ospitaleratzeen eta UCI-ZIUtako okupazioa egonkortzen hasita dago. Izan dadila erreferentzia hori hildakoen kopurua hurrengo egunetan gutxitzen hasteko iragarpena.



Ohean okupazioa, berez. Zainketa berezien okupazioa, urdinez. AIURRI

Ospitaleratzeetan, hobekuntza apala

Osakidetza arabera, ospitaleetan 631 lagun zeuden urtarrilaren 5ean. Astebetekoa kopuru hori 807raino igo zen. Urtarrilaren 16an zertxobait jaitzi da okupazioa, 780raino. Zainketa berezien unitateak egonkor darrai, 143ko okupazioarekin. Hobekuntza apala ematen ari da, baina oraindik ere lagun asko dago ospitaleetan.

“Beherakada geldoa” ematen ari dela dio

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak asteartean adierazi zuen Euskadin dagoeneko joera-aldaketa hasi dela antzematen, "bilakaera epidemiologikoan beherakada geldoa ikusten baita". Haren ustean, faktoreen artean leudeke gizarte-interakzioak gutxitu izana eta protokolo eta neurriak egokitu izana, "ekintza gehien behar dutenengan zentratzeko". Badira adierazpen horrekiko kritiko agertu direnak. Izan ere, Gabonen ostean jende asko dago etxean konfinatuta eta, ondorioz, nahitaez jaitsi da interakzio soziala. Bestalde, lehentasunak ezartzean, baheketarako eremua nabarmen murriztu da.



IREKIA

GORA ETA BEHERA



AIURRI



Umorea ez dadila falta

Geroz eta gizarte globalagoan, nazioarteko eztabaidak gurera iritsi ohi dira. Zeresana eman du Jokovic tenislariaren aferak. Andoaingo Mimendi kalean Covid-19 ziurtagiriaren

aurkako pintada agertu zen. Berriki, norbaitek Covid hitzaren gainean Jok letrak erantsi zituen, bat baino gehiagoren irribarra eragin du horrek.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analiak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: COVID-19 | DATUAK

w w w . a i u r r i . e u s

POSTONTZIA

PODEMOS ANDOAIN AHAL DUGU ANDOAIN

Osakidetza indartzeko sinadura-bilketa

Euskadiko Podemos Ahal Dugu-ko militanteak egiten ari diren kanpainan milaka sinadura biltzen ari dira hainbat ospitale eta osasun zentrozen aurrean ezarritako mahaietan eta www.podemos.eus webgunean.

Podemos Ahal Dugu-ko militantziak Eusko Jaurlaritzari Osakidetzatik kaleratu zituzten 4.000 osasun-langileak berriro kontrata ditzala eskatzeko egindako sinadura bilketek herritarren babes handia lortu dute. Joan den astean abian jarritako ekimenak milaka sinadura bildu ditu dagoeneko. Zirkuluak ospitale eta osasun-zentrozen atarian jartzen ari diren mahaietan eta [podemos.eus](http://www.podemos.eus) webgunearen bidez biltzen ari dira sinadurak.

Kanpainak aurrera egiten du euskal udalerrietan informazio-mahai gehiago jarrita, herritarren babesa lortzeko, Eusko Jaurlaritzari Osakidetzan giza baliabide eta baliabide material gehiago eskatzeko pandemiaren ondorioei aurre egiteko, lehen mailako arreta kolapsatuta baitago eta ospitaleetako egoera, tentsionatuta. Osasun zentroak gainezka daude, zaila da aurrez aurreko hitzordua lortzea, gaixo kronikoak ez daude ondo artatuta, eta, hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak ez du Osakidetza indartzen.

Herritarrak, beren sinadurekin, kritiko agertzen ari dira Eusko Jaurlaritzaren pandemiaren kudeaketarekin; izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez ditu oraindik herritarren beharrak entzun ezta neka-neka eginda dauden osasunlangileen ere, behar adinako giza baliabiderik ez dagoelako.

Izan ere, EAEko osasun-zentroetan ikusgai geratuko

da Osakidetzan dagoen gehiegizko zamaren eta utzikeriaren salaketa, SASTEk, ELAK, LABek, CCOOk eta UGTk deituta, 13:00etan, Lehen Mailako Arreta Bai lelopean. Euskadiko Podemos Ahal Dugu-k mobilizazio horiek babesten ditu, eta sindikatuek egingo dituzten protesta-ekitaldietan parte hartuko du, Lehen Mailako Arreta kolapsatuta mantentzen duen langile-defizita arintzeko premiazko neurriak hartzeko aldarrikapenaren alde.

Ido horretan, Euskadiko Podemos Ahal Dugu-k dei egiten die herritarrei elkarretaratze horiekin bat egiteko, bai eta sindikatu horiek hilaren 23an, EAEko hainbat udalerritan deitu dituzten mobilizazioetan parte hartzeko ere, Osakidetzak pairatzen duen krisi larria salatzeko eta pandemiaren olaturik okerrenari aurre egiteko behar adinako giza baliabide izatea eskatzeko.

“Herritarrek eta osasun-langileek bitarteko gehiagoko Osakidetza bat behar dute, gure osasuna, guztion osasuna, jokoan baitago”. Hala ohartarazi du Euskadiko Podemos Ahal Dugu-ko militantziak bultzatutako sinadura bilketa-kanpainan. Kanpainak herritarren babes handia lortzeko helburuarekin jarraitzen du, Eusko Jaurlaritzaren Osakidetza indartzeko premiaz jardutera behartzeko, hain zuzen ere urrian kaleratu ziren 4.000 osasun-langileak berriro lanean hasteko, oraindik ez baitira hartu berriro Osasunaren euskal sistemaren barruan, nahiz eta pandemiaren olaturik larrienean egon.

Jon Ander Ubeda URNIETA

23 urteko urnietarra, abokatutza masterra egiten ari da Donostian. Nazio mailako manifestazioa deitu duen Gazte Koordinakunde Sozialistako kidea da.

Urtarrilaren 29rako manifestazioa deitu duzue Bilbon. Hitzordua bera baino gehiago edo bezainbeste nabarmendu daiteke hitzordua iritsi bitarteko egiten ari zareten kanpaina masiboa.

Nazio mailako hitzorduak dira. Nafarroako mugimendua Iruñeara bideratuko dugu, eta EAEkoa eta Iparraldekoa Bilbora. Beharrezko ikusi dugu esparru horretan deialdia egitea, eta informazioa ere nazio mailan banatzea. Material ugari sortu dugu horretarako, herrialde bakoitzean informazio hori zabaltzeko. Ahalik eta gazte gehiagorengana iritsi nahi dugu, denori komeni zaigun manifestazioa delako. Denon interesen aldekoa da. Horregatik iruditzen zitzaigun egokia ahalik eta zabalkunde handiena izatea.

Gazte Koordinadora Sozialista mugimendua zarete deitzaileak. Zuen afitxatan, lehen puntuan, gazteari loturiko zailtasunez ari zarete... Etsipenaren aurrean borroka egitea al da alternatiba?

Hala da. Aspalditik datorren arazoa bada ere, geroz eta gehiago hedatzen ari da gazteon pobrezia. Aspaldian ez bezalako langabezia-tasa eta lan-baldintzen kaskartzea ematen ari da. Ohi-tuta gaude aldi baterako lanak egiten, lan-hitzarmenik gabe lan egiten, DUAL moduko sistemetan parte hartzea ohitu gara eta ez dugu ikusten horrek atzetik dakarren arazoa. Lan-baldintzen kaskartzearekin batera, azken urtean pandemiaren aitzakipean bizitza garestitzen ari da. Oinarritzko produktuena, argindarra-rena, erregaiena... Gazteok lehenetik baldintza kaskarrak genituen, aurrezkerik gabe bizi ginen eta, inoiz ez bezala, ez gara gure bizitza gure kabuz aurrera ateratzeko gai. Gazteon pobretzea ematen ari den une honetan, garrantzia duena bankarien eta enpresari handien interesak babesten jarraitzea da. Krisi betean sartzen ari garen heinean, gazteon pobretzea ez da arazo gisa ikusten.

"Gazte" hitza aipatu duzu hainbat aldiz, baina behin eta berriro proletarioaren antolakuntzari aipamena egiten diozue. Adiera hori erabiltzen duzue.

"Ikuspegi komunista daukagu"

ALBA QUEL GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTAKO KIDEA, URNIETARRA

"Burgesiaren diktadura gelditu! Ofentsiba ekonomikoa eta politikoa borrokatu!"
lemapean, manifestazioa deitu dute Bilbon. Sentsibilizazio kanpaina betean daude



Alba Quel urnietarra, GKSko militantea. AIURRI

Gazte Koordinadora Sozialistak gazteengana jotzen du, zehatzago gazteen artean, proletario moduan sailkatzen ditugunengana. Ziurrenik, Cristiano Ronaldoren semeek ez dute bizi guk bizi dugun arazo berdina. Gu zuzentzen garen jende multzoa proletarioarena da.

Horrez gain, afitxan, independente hitza errepikatzen da: "Antolakuntza independentea, alderdi politikoetatik kanpo". Beraz politika egin bai, baina alderdietatik kanpo?

Ikuspegi komunista daukagu eta argi dugu gaur egungo alderdi politikoez edo politikari profesionalek eskuak harrapatuta dituztela enpresari handien eta bankarien aldetik. Politika egiteko dirua behar duzu, eta dirua norbaitek ematen dizu. Normalean, enpresariak eta bankariak emandakoa da, horrek haien menpe egotea dakar. Horrek zer esan nahi du? Haien interesen aldeko politika egiten duzula. Horregatik, uste dugu gure interesak defendatuko dituen proiektua osatu nahi badugu, alderdi politiko horietatik kanpo egin behar dugula, azken finean, politikari profesionalek bi funtzio betetzen dituztela ikusten dugulako: batetik, bake soziala mantentzea. Pobretzen ari gara, pandemiaren aitzakipean gure eskubideak urratu dira eta hori guztia inork ez borrokatzeko antzerki modukoa egiten dute, Parlamentua existitzen dela eta funtzionatzen duela esanez. Beste hainbat tresna erabiliz, bake soziala bermatu nahi dute, jendeak kontra ez egiteko. Bestetik, ikusi dugu beren sistematik kanpo antolatzen den mugimendu oro blokeatzeko jarrera izaten dutela. Behin eta berriro pairatu ditugu horrelako blokeo-egoerak.

Bi funtzio horiek betetzen dituztela ikusita, modu independentean eta sistema horretatik kanpo antolatu behar dugula sentitzen dugu.

Politikari profesionalak aipatzean, zentzu orokorrean hitz egiten duzue. Urnietan bizi zara. Jakin badakizu hango ordezkari guztiak ez direla profesionalak. Ez dakit alde horretatik bereizketarik egiten duzuen, edo ez.

Sistema horretan, alderdi bidez antolatzen direnei buruz ari gara. Alderdi parlamentaristak izan, edo sozialdemokrazian daudenak izan, nahiz eta batzuk

agian ez kobratu, sistema horren arabera antolatzen direnei buruz ari gara.

Zenbat lagun dituzu militantzian, GKSren baitan?

Lagunak? Zeri buruz ari zara? **Andoainen esango nuke GKSko hainbat kide koadrilako lagun modukoak direla. Zenbat lagun dituzue zuk?**

Militatzean, kanpora begira ikusten ez dena baina barrura begira lan asko egiten da. Nahiz eta maila lokalean antolatu, badugu harremana beste herrietakoekin, lagunak gara baina ez dut uste pertsona mailako afinitateak batzen gaituenik. Ez gara gutxi, eta gure hedapena geroz eta handiagoa da. Kalitatiboki, gainera. Interesgarria da militantzia on bat izatea, gaitasunak dituen.

Hori galdetzen nizun zeren eta GKSkoa ez den beste mugimenduekiko pertsonekin ere harremana izango baituzu. Zer nolakoa da?

Normala. Militantziak ez dit inolako hausturatik eragiten, bizitza pribatuan. Eztabaidak izaten ditugu, beti gaude eztabaidatzeko prest. Gure lanaren baitan badago jende bati kontzientzia sortzea sozialismoaren eraikuntzarako bidean. Horregatik, maila politikoan eztabaidatzeko prest izaten gara.

Eta, era berean, jende asko ezagutzen dugu ez dagoena antolatuta, ez mugimendu batean eta ez besteetan. Zure ustez, zein da militantzia politikorako apatiko agertzearen arrazoa?

Sare sozialek garrantzia handia dute eta bere funtzioa betetzen ari dira gizartearen despolitizazioan. Sare sozialek interes komun hegemonikoari erantzuten diote: enpesari eta bankari handienarena. Euren sor-



laz antolatu zuten jardunaldiko argazkia. GKS

tutako tresnak direnez, nahiz eta guk politika egiteko erabili, benetan ez dira politika egiteko sortu. Gazte gehienok ordu asko ematen ditugu sare horietan, denbora hori beste gauzetan inbertitu gabe. Horrek arazoak pantailatik harago ez ikustera garamatza. Ez dugu esango teknologiaren kontra gaudenik, baina badugu joera kritikoa. Gure belaunaldian arazo handia sortu du, despolitizazio handia eragin du sare sozialen kontuak.

"SARE SOZIALEK GURE BELAUNALDIAN DESPOLITIZAZIO HANDIA ERAGIN DUTE"

Pentsatzen dut zuri ere iritsi zaiuzula, baina sentsazioa dut maiz erabiltzen duzun terminologiarekin jende bat hitzen edo esamolde batzuren bueltan kateatuta geratzen dela eta ez hainbeste hitz horren esanahiarekin. Adibidez, "burgesiaren ofentsiba" aipatzen duzue. Zer esan nahi duzue horrekin?

Argi dugu termino horiek normalizatzen joan beharko genukeela. Gainbehera modukoa izan zuten "burgesia", "proletarioa" hitzek. Ez dakigu ondo zein arrazoiengatik erabaki zen ez era-

"URNIETA NAHIKO DESPOLITIZATUTA DAGOEN HERRIA DA"

biltzea berrit. Definizio jakin bat eta egoera zehatz bat ondoen adierazten dutenak direlako. Horrelako terminologia erabiltzearen aldeko apustua egiten dugu, benetan atzean daramaten kontzeptu guztiagatik. Ez da berdina proletarioa hitza esatea, edo beste bat haren ordean erabiltzea. Burgesiaren ofentsiba aipatzen dugunean, bankariek eta enpresari handiek egungo sistema bideratzen dutelako da. Horiek dute benetako boterea eta erabaki ahalmena. Lehen esan bezala

"JENDE BATEK EZ DU PENTSATZEN MILITANTZIA BIDEZ GAUZAK ALDATZERA IRITSI DAITEKEELA"

politikari profesionalek zati bat kudeatzen dute, baina bene-benetan erabakiak hartzen dituenak burgesia bera da. Pandemiaren ez dira erabaki politikoak hartzen. Ofentsiba ikusten dugu gure eskubideak urratzen ibili direlako, langabezia-tasa handitzen ari delako eta ez duelako inork horren aurka borroka egiten.

Aldiz, hitzen aukeraketa horretan, atariz atari zabalduak afitxan ez dut inon topatzen "kapitalismoa" hitza. Nahita al da horrela?

Ez dakit. Sistema honen kontra borrokatzen dugu, sistema bera kapitalista delako. Ez dakit zehazki beharrezkoa den kapitalismoaz hitz egitea.

Urnietan bizi zara. Zer moduzkoa da bizitzeko? Eta militatzeko?

Nahiko despolitizatuta dagoen herria da Urnieta. Historikoki militantzia izan du, baina eskualdeko gainerako udalerriekin alderatuta, xumeagoa izan da. Askotan, jendeak ez du azaltzen diotuzun ezer ulertzen, nahiz eta kaleko termino gehiago erabili... Ez dakit zein den arrazoa, behar bada Urnieta "lo egiteko herria" delako askorentzat. Oso jende gutxi egiten du bertan bizitza. Nahiz eta gure ideiak sozializatu, jende batek ez du pentsatzen militantzia baten bidez gauzak aldatzera iritsi daitekeenik.

Zenbat jende espero duzue Bilbon? Goitik jo nahi dugu, eta espero dugu jendeak erantzutea.

Andoaindik eta Urnietatik joan nahi duenak, non eman dezake izena?

Andoainen, Lanbroa eta 97 tabernetan eta, Urnietan, Xauxarren eman daiteke izena, autobusean joateko. Urtarrilaren 29an 16:00ak aldera abiatuko da, eta bi herrietatik igaroko da. Manifestazioa 18:00tan hasiko da.


Egunean eguneko albisteak sarean



Abeltzaintza, aktualitatea



Komunitatea



Kirola, Eskola-Kirola

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



Eskola mailako 2030 Agenda

Andoaingo ikastetxetako ikasleek zelaiak, larreak eta landare itsutasuna landuko dute aurtengo ikasturtean. Egitasmoaren marka indartzeko lehiaketa antolatu zuten, eta irabazlea Sheila Arnaiz Leizaran institutuko ikaslea izan da

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo ikastetxeetako ikasleak zelaien eta landareen gaineko lanketa egiten ari dira 2021-2022 ikasturtean. Eskola Agenda 2030 programaren barnean kokatzen da lanketa hori. Programa Andoaingo Udalak bultzatzen du, eta ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen Artelatzen enpresak kudeatzen du.

Andoaingo ikastetxetako ikasleek zelaiak, larreak eta landare itsutasuna landuko dute aurtengo ikasturtean, esan bezala. Artelatzen adierazi duenez, biodibertsitatez beteriko ekosistemak dira zelaiak, belardiak eta larreak, eta, gainera, belarra Heltxor preziatua da Euskal Herriko base-rientzat. "Baserritarrek, mendizaleek eta gainerako naturaren eta zelaien erabilgaitzaileek, guztiok zaindu beharrekoak dira".

Landaren "itsutasunaren" kontzeptua espezieei buruz dugun ezjakintasunarekin lotzen du Artelatzen. "Zuhaitz-espezie batzuk ezagutzen ditugu, baina ez dugu larre eta zelaietan bizi diren landare eta loreen izenik ezagutzen. Izan ere, oharkabean pasatzen dira". Belardiek Lurrean daukaten garrantziaz jabetzeko, bi datu esanguratsu azaltzen ditu Artelatzen: "Lurraren azalera kontinentalaren laurdena inguru belardiz estalita dago. Belardietako landarediak eta lurzoruak karbono-hustuleku gisa erabiltzen dira, klima-larrialdiaurrean aurka borrokatzen lagunduz".

Artelatzen gogoratu du eskola komunitatea garatzen ari den programa honen bidez Andoaingo herritarrek ere gaiaren inguruan hausnartzeko aukera edukiko dutela. Hori dela eta, animatzen ditu belardi eta larreak behatzera, eta horiei "ikusgarritasuna ematera, ingurumen



Sheila Arnaiz ikasle gaztea, berak egindako diseinua eskuetan duela. AIURRI

jasangarriago baten barruan merezi duten balioa emateko".

Eskola Agenda 2030 Eskola Agenda 21 garatu ondoren heldu den programa da, eta Nazio Batuetako Erakundeak adostutako Garapen Jasangarrirako 17 helburuetan oinarritzen da.

"PLANETAK JAI DAUKA BALDIN ETA GIZAKIOK EZ BADUGU BABESTEN"

Inor atzean utzi gabe, mundua aldatzeko gogoz sortutako 17 helburu dira horiek. Hain zuzen, munduan pobrezia desagerraraztea, planeta babestea eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzea da 17 helburu horien nahia.

ANDOAINGO IKASTETXETAKO IKASLEEK ZELAIK ETA LANDAREK AZTERGAI DITUZTE

Sheila Arnaiz logotipoaren egilea da

2021etik 2030era Andoaingo ikastetxeetan landuko den Eskola Agenda 30 programak irudi identifikatzaile ofiziala behar zuela eta, logo-lehiaketa jarri zuten abian iaz Leizaran, Ondarreta, Aita Larramendi eta La Salle Berrozpeko ikasleen artean. Sheila Arnaiz ikasleak aurkeztu zuen diseinua hautatu zuten guztien artean. Ondarreta ikastetxean eta Leizaran institutuko ikaslea izan da Arnaiz, eta aurtengo ikasturtean unibertsitatean kimikako ikasketak egiten ari da.

"Bi ideia nahiko argi neuzkan buruan; batetik, logoak mezua zuzen-zuzenean transmititu behar zuela, eta bestetik, Planeta laguntza eske irudikatu berako litzatekeela. Bada, irudi ugari zirriborroak egin ostean, azkenean, buruan neukan ideia islatzen zuenarekin asmatu nuen: gizakiaren eskuak laguntza eske dabilen Planetari erantzuten dio". Era horretan, sortutako irudi definitiboak mezu ezin zuzenagoa proiektatzen duela iruditzen zaio Sheilari: "Alegia, Planetak jai daukala baldin eta gizakiok ez badugu babesten".

Sheila Arnaiz Andoain lehena eta bigarren hezkuntzako ikasle izan den aldetik, ondotoxoz ezagutu du iaz arte ikastetxeetan garatu izan den Eskolako Agenda 21 programa. "Baliagarria iruditzen zait horrelako programa ikasleen artean sustatzea, kontzientzia sortzen duelako mundua hobera aldatzeko helburuz. Zehatzago izanda, esango nuke ikasleen artean birziklapenaren arloan batik bat eragin izan duela orain arte".

Sheila Arnaiz aspaldi heldu zion sorkuntza artistikoari. Marga Oiartzun eta Eduardo Arreseigoren irakasleek ireki zuten Andoaingo Sormen Tailerreko ikaslea izanik, margoketako eta buztzingintzako hainbat teknika landu izan ditu urtetan, eta bide horretatik segitzen dio egun ere. "Batik bat, paisaiak eta erretratuak margotzea dut gogoko".

"BATIK BAT, PAISIAK ETA ERRETRATUAK MARGOTZEA DUT GOGOKO"



Lanak hastekoak dira. AIURRI

Biribilgune berria eraikitzeko lanei ekin diete

Helburua Rikardo Arregi eta Agustin Leitza kaleetako trafikoa hobeto bideratzea da

Erredakzioa ANDOAIN

Ordu jakinetan, bereziki, korapilo handi samarra sortzen da Anbulatorioa eta Stop liburu-denda dauden inguru hartan. Rikardo Arregi kaletik Agustin Leitza kalerako bidean, beste kale batzuetatik eratorriko trafikoa batzen da. Arteta kalekoa, eta eskola orduetan bereziki Gernika kaletik iristen dena.

Trafikoa hobeto bideratze aldera, Hirigintza Sailak biribilgunearen eraikuntzari ekingo dio. Udalak zabalduetako oharren arabera, "lanek bi hilabeteko epea dute, gutxi gorabehera, eta inguruko zirkulazioari eragingo diote, bai ibilgailuei, bai oinezkoiei, eta, obrak egiten diren une jakin batzuetan, behin-behineko pasabideak edo ibilbide alternatiboak prestatu beharko dira".

Hirigintzako zinegotzi Jose Luis Verdascok obraren zuzendaritzak jarriko dituen seinaleei arreta jartzeko eskatu die herritarrei. Lanak amaituta hobekuntza nabarmena izango dela uste du: "Obrak nabarmen hobetuko ditu pertsonen irisgarritasuna, bide-segurtasuna eta zirkulazioaren arintasuna".

Ordu jakinetan, eskola orduetan bereziki, zirkulazio-dentsitate handiko gunea da.



Azoka solidarioaren jarraipena

La Palmako biztanleen aldeko Azoka Solidarioaren azken artikuluak salgai izango dira, urtarrilaren 20tik 22ra. Belabi kaleko 7ko egoitzan izango da. Orduategia: Ostegun-ostirala (16:00-20:00) eta larunbata (10:00-13:30/16:00/20:00). Arropa, jostailuak, sukaldeko tresneria, patinak, eskiak, dekorazio-objektuak, altzari lagungarriak, liburuak, CDak eta DVDak.



Ikastaroen eskaintza zabala da. AIURRI

Langileentzako ikastaro-sorta, otsailean hasita

La Salle Berrozpe ikastetxeak fabrikazio mekanikoari eta elektrizitateari buruzko eskaintzaren berri eman du

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxetik jakinarazi dutenez, langileentzako ikastaro berriak eskainiko dituzte otsailetik aurrera. Eskaintza zabal da, fabrikazio mekanikoaren alorrean: Autocad (50 ordu), fabrikazio mekanikorako planoen interpretazioa (50 ordu) edota ekoizpenaren diseinua, kudeaketa eta hobekuntza (40 ordu). Ikastaroak otsailaren 15etik aurrera hasiko dira, eta guztiak arratsaldean eskainiko dituzte. Denera, hoguei ikastaro ezberdin eskaintzen dituzte.

Elektrizitate eta elektronika alorrean, bestalde, Make maila ezberdinak (30 ordu), koadro elektrikoaren muntaia (30 ordu), zirkuitu pneumatikoen instalakuntzarako hastapen ikastaroa (30 ordu), oinarriko elektrizitatea (30 ordu). Alor horretako ikastaro guztiak datorren otsailaren 22a abiatuko dira.

Informazioa

E-posta: monica@lasalleberrozpe.eus
Telefona: 943 590 557.
Orduategia: 17:00-20:00.
Helbidea: La Salle etorbidea, 5.



2019ko afitxa. BERDINTASUNSAILA

Martxoak 8ko egitaraua iragartzeko kartel lehiaketa

Gipuzkoan bizi diren eta 16 urtetik gora duten emakume guztiek parte har dezakete

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak egitarau oparoa antolatu ohi du. Egitaraua ilustratzen duen afitxa edo kartela lehiaketa bidez aukeratzen da, eta dagoeneko deialdia egin dute. Koloretan eginda aurkeztuko dira lanak. 65 cm-ko altuera eta 31 cm-ko zabalera izango dute kartelek, eta irudia neurri horietan edo horien proportzioan aurkeztu beharko da. Guzietan, ongi nabarmendurik, ondoko testua azalduko da: "Martxoak 8 - Emakumeen nazioarteko eguna. Andoain 2022". Testu horrez gain, ez da beste lelorik edo testurik idatziko.

Lanak aurkezteko epea

Datorren otsailaren 9a da lanak aurkezteko azken eguna. Bastero Kulturgunean aurkeztu behar dira, eta orduategia honakoa da: 10:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Sari bakarra izango da, 450 eurokoa, Salkinera atxikitutako merkatalguneetan kontsumitzeko. Epaimahaia Udaleko Berdintasun Batzordearen eta Gizarte Zerbitzuetako batzordearen ordezkari banak, Berdintasunean aditu batek eta plastika arloarekin zerikusia duten bi ordezkari osatuko dute.



Aiertza eta Huitzi, ekitaldiaren aurkezpenean. UDALA

Ikus-entzunezkoen alorra sendotzeko lehiaketa

Andoain Laburrean lehiaketan parte hartzeko aukera datorren urtarrilaren 28an amaituko da

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak Zine eta Bideo Eskolarekin (ESCIVI) batera antolatzen duen lehiaketan parte hartzeko azken txanpan sartu gara, lanak aurkezteko epea datorren urtarrilaren 28an amaitzen baita. Ikus-entzunezkoen alorrean trebatzen ari diren gazteentzat aukera aparta da.

Ainhua Aiertza ESCIVIko ordezkariak aurkezpen ekitaldian azpimarratu zuenez "lehiaketak ikus-entzunezkoen alorrean murgilduta dauden gazteen artean interes handia sustatzen du". Aurten 16-28 urte bitarteko gazte ez-profesionalek hartu ahal izango dute parte, eta bideo laburra osatzerakoan gaia librea izango da.

Alexander Huitzi zinegotziak hizkuntzarengan arreta berezia jarri zuen: "Andoain Laburrean lehiaketa euskaraz sortzeko eta kontsumitzeko apustua da. Izan ere, oinarrietan agertzen den moduan bideo laburrean hizkuntza eduki guztiak euskaraz izan beharko dira".

Lehiaketak izango du lotune bat parte hartzaile guztien artean. Izan ere, irudietan elementu amankomuna erabiltzeko apustu egin dute. Andoaingo Udaleko Euskara sailak argitaratu berri duen Anjel Lertxundiren "Herminaren prosak" izeneko liburua nonbait agertu behar da, istorioaren elementu garrantzitsu edo zeharkako elementu gisa.

Aurkezten diren bideoek 2021eko otsailaren 1etik 2022ko urtarrilaren 28ra bitarte graba-

turikoak behar dute izan. Nola ez, lanak originala izan behar du, orain arte argitaratu gabea. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.

Sariak

Lehenengo saria 500 eurokoa izango da, eta bigarren saria 300 eurokoa. Bestalde, sari berri bat sortzen da, "ikuslearen saria" deiturikoa. Ikusleek www.andoainarraeuskaraz.eus webgunean bozkatu ahal izango dute bere bideo laburrik gogokoena, otsailaren 5etik 13ra, eta boto gehien jasotzen duen bideoaren egileak Bastero Kulturguneko zinemarako bi bazkidetza bono eskuratuko ditu.

Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 28a da. Lanarekin batera datu pertsonalen fitxa aurkeztu behar da. My Air Bridge (www.myairbridge.com) bidez bidali behar dira bideoak .mov edo .mp4 formatuetan. E-posta bidez aurkeztu behar dira lanak: euskarazerbitzua@andoain.eus.

Sari banaketa ekitaldia datorren otsailaren 17an izango da, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan arratsaldeko 19:00tan hasiko dena.

"LABURREAN LEHIAKETA EUSKARAZ SORTZEKO ETA KONTSUMITZEKO APUSTUA DA"



Sergio Garcia andoaindarra. AIURRI

"Eskola-Kirola martxan izatea bideragarria da"

SERGIO GARCIA IRAKASLEA, ENTRENATZAILEA ETA ESKOLA-KIROLAKO KOORDINATZAILEA
Hautsak harrotu ditu aurreko astean Eusko Jaurlaritzak Eskola-Kirola ekimeneko lehiaketak urtarrilaren amaiera bitarte bertan behera uzteko aginduak

Mikel Arberas ANDOAIN

Gurasoek eta kirol federazioek muturreko neurriarekin ados ez daudela adierazi dute. Gaiaren gaineko iritzia jakiteko, LaSalle Berrozpe ikastetxeako irakaslea, Euskaldunako entrenatzailea eta Eskola-Kiroleko koordinatzailea den andoaindarrekin hitz egin du Aiurrik.

Ze iruditzen zaizu eskola kiroleko partidak bertan behera uztearen erabakia?

Egia da azken asteetan kutsatzeek gora egin dutela eta neurriak hartu behar direla. Baina, argi eta garbi, horien artean koherentzia mantendu behar da. Zera esan nahi dut, osasuna eta segurtasuna bermatzeko neurriak

hartu dituzte, haur eta gazteen garapen-prozesua kontuan eduki gabe; hori ere osasuna da, ezinbestekoa dute eta eragin handiko jarduera da beren egoera psiko-sozialean.

Kirola egiteko eta sozializatzeo aukera hori ukatuz gero, beste ohitura batzuetara joko dute.

Hala ere, espero dugu, urtarrilaren 28tik aurrera neurri hauek indargabetu eta normaltasuneranzko bidea hartzea. Arestian aipatu bezala, ez zait oso koherentea iruditzen helduagoak direnek gauza asko egiteko aukera edukitzea, eta haur zein gazteei asteburuan partida bat jokatzeko eskubidea ukatzea. Badira egoera ulertzen ez duten haurrak: "Zergatik debekatzen didate aire librean partida bat jokatzeko entrenamenduak egiten ditugunean, eta gurasoak musukorik gabe tabernan egon daitezkeenean?", diote. Ulergaitza egiten zaie. Pentsatu nahi dut neurri hori ezartzearen arrazoi nagusia herrien arteko nahasketa ekiditea dela.

Eraginkorrak al dira neurri horiek?

Ez dut uste. Kasu honetan, haurrari modu jarraituan eta arautuan kirola egiteko aukera kenduz gero, beste alternatiba bat bilatuko dute; esaterako, Andoaingo zein beste herrietako kaleetan kirola egiten saiatuko dira. Aitortu beharra daukat, ez dakidala Eskola-Kiroleko partidak etetearen erabakia zehatz mehatz zergatik hartu den. Egun, ez du zentzu askorik. **Erdibideko erabaki baten alde egongo zinate?**

Jakina. Gauzak ez dira zuriak edo beltzak. Ez da beharrezkoa horrelako kirol jarduera garrantzitsua etetea. Segurtasuna bermatzeko neurri txikiagoak hartu daitezke, esaterako, aire librean egonda ere musukoa jartzea edo talde txikiagotan banatzea, nahiz eta gogokoak ez izan. Haurrak izan dira ia osotasunean arau eta neurri guztiak ongi bete dituzten bakarrak, moldatzeko gaitasun izugarria dute, eta, oraingoan ere, egoera berrira moldatuko lirateke, arazo handirik gabe. Zoritxarrez, erdibideko zerbait bilatu beharrean, errazena egin dute, debekatu. Gainera, umeek ia txintik esan gabe bete dituzte ulergaitzak diren mila neurri, baina beti eurak dira kaltetuak. Berritortu, ez da erraza neurriak hartzea, baina gauzak zentzuarrekin egin behar dira.

Koronabirus kasuak edo agerraldiak eduki al dituzue eskola kirolean edota futbol entrenatzaile gisa pandemian?

Kasuren bat eduki dugu, baina oso gutxi, eta agerraldirik ez da jazo taldean. Entrenamenduak

eta partidak dituzte, baina beste egunetan gune ezberdinetan mugitzen dira, askotariko jendearekin. Zera esan nahi dut, Eskola-Kirolean ez dira denbora luzez aritzen eta aire libreko jarduera da. Beraz, seguruenik kutsatuz gero kirol orduetatik kanpo izango zen. Espazio segurua dela esango nuke.

Asko dira azken hilabeteetan kutsatu diren haurrak...

Haurrek, oro har, oso ondo bete dituzte orain arte ezarritako arauak; musukoa jarrita edukitzen dute, burbuiletan banandu dira eta ez dira kexatzen. Azken hilabeteetan umeen kutsatze tasa izugarri handitu da, bai, eta beldurra edukitzea guztiz normala da. Alabaina, gabonetan kutsatzeek nabarmen egin dute gora, eta, nik dakidala, ez da Eskola-kirola egon opor garaian. Beraz, nondik datoz kutsatzeak? **Irakasle, entrenatzaile eta eskola kiroleko koordinatzaile gisa, partidarik ez egoteak nola eragiten die haurrei?**

Ezinbestekoak diren bizipen ugari oztopatu dituzte, eta ikas-kuntza-eta garapen-prozesua geldiarazi dute. Irakasle eta entrenatzaile ikuspuntutik ohar-tzen gara haurrek eta gazteek asko ikasten dutela taldean egiten diren kirol-jardueretatik. Egoera errealekin bizitzen ikasten dute; besteak beste, lagunarteko haserreak konpontzen, galtzearen tristura gainditzen edota irabaztearen poza sentitzen. Gaztetxoek ikuspuntutik oso zoriontsua da kirol-jarduera eta legediak kendu egin die zoriontasun puska hori. Haurrak asteburua iristeko desiatzen egoten dira guraso, lehengusu edota lagunen aurrean aste osoan zehar ikasitakoa eta entrenatutakoa erakusteko.

Berritortu esango dut: gauzak ez dira zuriak ala beltzak. Eskola-Kirolaren eta partiden gaineko neurriak hartu daitezke, baina, horretarako, ez da beharrezkoa bertan behera geratzea. Koherentzia egon behar da hartzen diren erabakietan, batez ere, kirolaz gozatu nahi duten gazteen eskubidea bermatzeko.

"KIROLA EGITEKO AUKERA UKATUZ GERO, BESTE OHITURA BATZUETARA JOKO DUTE"



Agerraldi bateratua egin zuten astelehenean. FEERAZIOAK

Federazioen adierazpena

"Eusko Jaurlaritzak Eskola-Kiroleko lehiaketak bertan behera uzteko eskatu eta hiru foru aldundiek hala erabaki dutenez, Gipuzkoako kirol federazioek adierazten dute ez daudela guztiz ados neurri horrekin; izan ere, berriz gazteen kirol jarduerari eragiten dio eta era guztietako ondorio negatiboak dakartza.

Pandemia lazgarri honetan zehar, kirol afizionatuak gizarteak b erarengandik espero duena ematen jakin du, osasun agintarien gomendioak betetzeko orduan atsedenik gabe lan eginez, protokoloak martxan jarriz oraindik erakundeek argitaratu ez dituztenean, bere jabetzakoak ez diren instalazioen segurtasunean inbertituz, eta gazteak pandemiari aurre egiteko arauak zorrotz betetzeko beharraz kontzientziatuz. Jarrera arduratsu eta solidario horri esker kirol jarduera giro seguruan garatu ahal izan dugu, eta milaka kirolari dira, federatuak zein eskola mailakoak, joan den irailaz geroztik kirolaz gozaten daramatenak, inolako ondorio negatiborik antzeman gabe.

Ulegaitza da Eskola-Kirolean eragitea; gainera, behin baino gehiagotan gertatu den bezala, horrelako neurriak hartu dituen autonomia erkidego bakarra da.

Gipuzkoako gizartearen kirola egitea funtsezko jarduera da, batez ere, adin goiztiarretan. Funtsezkotzat hartu beharrean, ordea, Eskola-Kirola ia urte eta erdirik geldirik egon zen, eta horrek haur askok kirola alde batera uztea ekarri du. Ohitura osasungarrietako bat zigortzen den bitartean, baimenduta daude pilaketak eragin ditzaketen beste jarduera batzuk. Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu neurri hori atzera botatzeko eta aste honetan bertan eskola lehiaketarekin jarraitzeko aukera emateko: izan ere, aditu askok aurreko egunetan adierazi duten bezala, bertan behera uztea ez da inolako ebidentzia zientifikotan oinarritzen eta ez du inolako onurarik osasun egoera hobetzeko.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a".

Urnieta eta Euskalduna Kopan

FUTBOLA Kadete mailako neskek Kopari ekin diote, eta Urnieta eta Euskaldunakoen hasiera ona izan da. Urnietak Oiartzun garaitu zuen (3-1), eta lidergotza eskuratu du. Euskaldunak berdinketa lortu zuen Intxaurdiren aurka (0-0). Biak kanpoan ariko dira, asteburuan.



EUSKALDUNA

Mailari eusteko lehia hasi da

ESKUBALOIA Urnieta Artola Harategia taldeak ezin hobeto hasi du Euskadiko txapelketako jaitsiera fasea, lehen jardunaldian Arabako Gure Auzune taldea mendean hartuta (26-15). Urnietarrek lehen bi puntuak lortu dituzte mailari eusteko lehiaren partida bikaina egin ondoren. Nahiz eta UKEkoen partidarik onena ez izan, defentsa sendoa erakutsita garaipena etxean geratu zen, ezinbestekoak diren bi puntu eskuratuta.



UKE



GANBARA

Ganbara saski taldea martxan

SASKIBALOIA Eskola-Kirolari zegoen azken orduko aldatetaren arabera, kadete mailako partidak azkenik jokatu ahal izan ziren. Txitibar taldea Atletico San Sebastian taldearen aurka aritu zen, Donostian (84-19). Junior mailan Ganbara taldeak, bestalde,

ZAST zarauztarrak hartu zituen etxean (28-56). Asteburu honetan beste bi partida gehiago jokatuko dira. Junior mailakoak Oiarsoren aurka (Errearteria. Igandea, 11:45), eta kadeteak Goierriren aurka (Allurralde. Larunbata, 09:00).



Urnieta
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 20

ANDOAIN Sinadura-bilketa

Herritar talde batek uztailetik hona indarrean dagoen bus kontzesio edo emakida berriarekin desadostasuna agertu du, eta hainbat proposamen egin nahi dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Proposamen horiek babesteko sinadura kanpainari ekin diote.

Urtarrilaren 29ra arte.

OSTIRALA 21

ANDOAIN Erakusketa

Trentxiki argazki elkartearen eskutik: "Mizelanea-Trentxiki AE 10 urte". Astelehenetik ostiralera: 18:30-20:00. Asteartetan itxita. Larunbata: 10:30-13:30 / 18:00-20:30.

Urtarrilak 21-25. Bastero.

ANDOAIN Antzerkia

ATX Teatroak bere sorreraren 10. urteurrena ospatuko du 'Lubaki lainotsua' ikuskizuna eskainiz. Drama eta umorea uztartzen dituen egitasmoa.

20:30, Bastero. 12 euro.

IGANDEA 23

URNIETA Antzerkia

"Ikimilikiliklik" antzezlan, Marie De Jongh konpainiaren eskutik. Keinu bidezko ikuskizunetan eskarmentu handia badute ere, oraingoan hitza eta guzti erabiliko dute.

17:30, Sarobe.



"Ikimilikiliklik" konpainiaren ikuskizun berriena da. DEJONGH

URNIETA "Ikimilikiliklik" ikuskizuna

Marie de Jongh konpainiak antzezlan berriena eskainiko du Urnietan. Horrela azaldu dute ekimena: "Gure proiektuaren protagonistak sorginei sekulako beldurra zien, baina, denborarekin, sorgin bihurtu den neskato bat da. Beldurraren gaineko hausnarketa bat partekatu nahi dute ikusleekin.

Urtarrilak 23, igandea. 17:30, Sarobe antzokia.

ASTELEHENA 24

ANDOAIN Batzarra

Larramendi Kultur Bazkunak bazkideak deitu ditu.

18:00, Basteroko ekitaldi aretoa.

OSTIRALA 28

URNIETA Odol-ematea

Adi! Oraingoan Plazido Muxika plazan dagoen Gaztelekuan egingo da odol-emate saioa. Boluntarioek ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute, txanda hatzeko: 943 00 78 85.

16:30, Gaztelekua.

LARUNBATA 29

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Kui Kui" izena du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizun berriak. Azken orduko itzulketarik ez badago behintzat, iragarrita dauden bi saioetarako sarrerak agortuta daude.

16:30 / 19:00 Bastero.

URNIETA Batzar Orokorra

Denda Berri adinekoen egoitzan bertan egingo dute Ohiko Batzar Orokorra. 17:00etan lehen deialdia eta 17:30ean bigarrena.

17:30, Denda Berri.


Arrakasta ziuerra

Basakabiko abenturez gozatzeko aukera dute Euskal Herriko neska-mutilek. Eitb-ren ekoizpena, gainera, audientzia handia lortzen ari da. Ostiraleko telesailaz gain, handik hona eskaintzen ari dira antzezlanak. Datorren otsailaren 6an Basterora datoz, eta bi emanalditarako sarrerak azkar batean agortu ziren. Hirugarren saioa antolatuz gero ere, sarrerak agortuko lirarteke.



EITB

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

El amor en su lugar.

Larunbata, 22. 19:30, 22:00.

Igandea, 23. 19:30.

Astelehena, 24. 19:30, 22:00.

Trash.

Haurrentzat.

Larunbata, 22. 17:00.

Igandea, 23. 17:00.

DATORRENA

Vuelta a casa de mi hija.

Urtarrilaren 30ean.



SINOPSIS



EL AMOR EN SU LUGAR

Zuzendaria: Rodrigo Cortes. **Aktoreak:** Clara Rugaard, Ferdia Walsh-Peelo, Magnus Krepper, Freya Parks, Jack Roth, Henry Goodman, Dalit Streett Tejeda. **Herrialdea:** Espainia (2021).

Generoa: Drama, erroantikoa, musikala. **Iraupena:** 103 minutu.

Sormena, baita garai zailean ere

1942ko urtarrila. Polonia osoko 400.000 juduk urtebete baino gehiago daramate naziek konfinatuta. Harresitik kanpo, bizitzak aurrera jarraitzen du.

Barruan, bertako biztanleek bizirauteko borrokatzen dute. Adreiluzko horma garaiak ez du aktore juduen talde baten sorrera gelditzea lortzen.

SINOPSIS



TRASH

Zuzendariak: Francesco Dafano, Luca Della Grotta. **Herrialdea:** Italia (2020). **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 88 m.

Musika ardatz duen filma

Flako kartoizko kutxa bat da, merkatu batean bizi dena bere lagun Burbujasekin, kola

freskagarri botila bat. Garbiketa-makinetatik ezkutatu bizirauten du

Korrika batzordea deitu dute Urnietan

Ostegun honetan izango da Lekaio kultur etxean, iluntzeko 19:00tan hasita

Aiurri komunitatea

Urnietako AEK

URNIETA

Datorren ostegunean, hilak 20, Korrika batzordea izango da herrian. Lekaio kultur etxean egingo da bilera, arratsaldeko 19:00etan.

Korrikan parte hartzeko moduak askotarikoak dira. Eta, parte hartzeko asmotan bazabiltza, gurekin bat egin dezazun eskatzera gatzokiz, Urnietan egingo dugun Korrika batzordearen lehen deialdira etorrita.

Bertan 22. Korrikaren nondik norakoak, eta Urnietan egingo direnak ezagutzeko aukera izango duzu, eta, horrela, nahi izanez gero, herrirako bestelako ekitaldiak proposatzeko ere bai.

Horrez gain, herrian egin beharreko lanak zerrendatu eta banatuko ditugu. Konpromisorik gabe etor zaitezten eskatu nahi dizugu. Bertan entzundakoaren arabera erabakiko duzu, gero, zeure ekarpena zein izan daitekeen; eta, inolako aukerarik izango ez bazenu ere, Korrika geure herrian izango dela ezagut eta zabal dezazun da gure nahia.

Ahalegin horretan zeure laguntza estimagarria izango dugulakoan,

Ekin Korrikari!



Britac Proyectos S.L. enpresa sustatzaileak landutako irudi-muntaia. UDALA

Etxebizitza tasatuen eskaintza Urnietako Ermotegiko eremuan

Etxebideren webgunean argitaratu da etxebizitza tasatuetan izena emateko epea zabaldu da

Erredakzioa URNIETA

Langardako etxebizitza-multzoaren ondoran, Urnietatik Hernani aldeko norabidean, 130 etxebizitza eraikitzeke egitasmoa gauzatzen ari da Britac enpresa. Etxebizitza horietatik guztietatik 25 tasatuak izango dira eta beste 25 babes ofizialekoak. Aste honetan Etxebideren webgunean argitaratu da etxebizitza tasatuetan izena emateko epea. Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, "Etxebizitza horietakoren bat erosi nahi eta esleipen-prozesuan parte hartzeko interesa duten herritarrek otsailaren 14ra arteko epea dute". Ezinbestekoa da, hori bai, Etxebideko erregistroan alta emanda egotea. Egitasmoa aurreradoa, zeren eta otsailaren 21ean izena-eman eta zozketan sartuko direnen zerrenda argitaratuko baitute. Albisteak interes handia piztu du, Aiurri.eus

gunean argitaratu eta ordu gutxira albiste irakurriena izatera iritsi baita. Etxebizitza berriekiko dagoen interes biziaren seinale da hori.

Aukera ezberdinen araberako prezioak

Salneurri mugatuko etxebizitza horien diseinua ezberdina izango da. Logela bat, bi edo hirukoak izatera iritsi daitezke. Horiez gain, egokitutako etxebizitza bat eskuratu ahal izatea aukeren artean dago. Salneurri dago-kionez, 174.708,37 eurotik 274.992,13 euro arteko prezioa izango dute. Beti ere, tamainaren araberako prezioak dira.

Ermotegiko etxebizitza-multzo osotik 25 etxebizitza babes ofizialekoak izango dira. Urnietako Udalak iragarri duenez, "promozio hori ateratzen denean, Udalak informazio zehatza emango die urnietarrei".

"Baserritarron laguna" saria, Orona fundazioari

ENBA sindikatuak Beterri-Buruntzako ekimena sarituko du, sariaren V. edizioan

Erredakzioa URNIETA

ENBAk Orona fundazioa sarituko du "jasangarritasunaren bidearen erdi-erdian, langilegoaren elikadura jasagarria, osasuntsua eta bertakoa jartzeagatik". Saria iragartzeko oharraren diotenez, Oronak 2014an erabaki estrategikoa hartu zuen jasangarritasuna bere jardueraren erdigunean ezarri: "Jasangarritasunaren bidean, lehen sektorearen ikuspegitik, oso garrantzitsua eta, aldi berean, eredugarria da, Oronak beren langileen elikadura osasuntsua, jasagarria eta bertakoa izateko hartu dituen erabakiak eta emandako urratsak, besteak beste, Diametro 200 bezalako jantokia, Fede Pacha sukaldari bikainarekin elkarlanean, eta langileentzako barazki kutxen zerbitzua eskainiz. Enpresa mundurako eta euren jantoki-katering zerbitzurako eredua da enpresa mundutik lehen sektorea eta ingurumenaren alde egin daitekeen lan bikainaren ispilu".

Saria datoren urtarilaren 30ean jasoko dute, fundazioak Galarretan duen instalakuntzat. Bide batez, hango areto nagusian ospatuko da ENBA sindikatuaren urteko Batzar Orokorra.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Amaia Errazkin Ezeiza
Urtarrilaren 27an 25 urte beteko dituzu. Ondo ospatu. Mila muxu aitona Esteban eta amona Mirenen partetik.



ANDOAIN
Laida Bueno
Zorionak maitia! 8 urte potolo betetzen dituzu! Egun ederra pasa! Jaso itzazu etxeko guztien muxu goxoak eta erraldoiak!



URNIETA
Zorionak Aritz!
Hamar urte betetzen dituzu!!! Ondo pasa eguna etxeko eta lagun guztiekin.

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Andoingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza **edo mintz-lagun** bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez

/ danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: **reflexologist45@yahoo.co.uk**

PARTE HARTZEKO

Email: **diseinua@aiurri.eus**
Whatsapp: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN**



CEPA Andoain HHI Helduen hezkuntza

MATRIKULA ZABALIK 2021-22 ikasturteko 2garren lauhilabetea

- DBH-ko **titulua** lortu.
- Hizkuntzak: ingelesa.
- Zure ikasketak **jarraitu**.
- Atzerritarrentzako gaztelera.

Kale Nagusia 4-B. ANDOAIN. 943 304 021



andoainDARRA
euskaraz

